

BARRUA HUSTU

Andrea (Valentzia, 1992).


Zer da Entzute Sarea? Euskarri, konpainia eta ikaskuntza sare bat.

Nola sortu zitzaizun Entzute Sarean parte hartzeko aukera? CARITAS GIPUZKOAKo Miriam proiektuaren bidez: bertako boluntarioa naiz. Sarea martxan jartzeko deia egin zenean, parte hartzeko prest azaldu nintzen.

Zer lan egiten duzu Entzute Sarean? Entzute aktiboan, akonpainamenduan... oinarritutako prestakuntza baten ondoren, elkarrizketa bat izateko deitzen diegun pertsona batzuekin solasaldiak izaten ditugu.

Gauza bera al da entzutea eta jaramon egitea? Ez. Ezertarako ez. Gainera, entzute aktiboari buruz gehiago jakin ahala, gehiago konturatzen naiz zer zaila den.

Zer sentsazio dituzu? Ekimenak ibilbidea laburra badu ere, harritu egiten nau deiek zein harrera ona duten, eta nitaz ezer ere jakin gabe, nirekin hitz egiten duten pertsonak zer nolako naturaltasunez aritzen diren. Hitz egin dudana pertsonak oso gustura daude CARITAS GIPUZKOA beraiekiko adi-adi dagoelako



Zein da Entzute Sarearen dinamika? Pertsona-kontaktu batzuk ematen dizkirate, deitu egiten diet eta elkarrizketa bat izaten dugu. Saiatzen naiz, deiak, 15 minutu inguru iraun dezaten. Nola sentitzen diren esaten didate...

Jende asko al dago hitz egiko premiarekin? Ez dute espreski behar hori adierazten, baina hitz egiteko interesa erakusten dute. Inoiz ez dute elkarrizketa bat baztertu. Hitz egiteak onura egiten diela iruditzen zait, eta horregatik, eskertu egiten dute. Helburuetariko bat, barrua hustutzea da.

Zein da deiaren bigarren zatia? Elkarrizketa normaltasunaren barruan gertatzen bada, ez diot ezer Miriam proiektuari helarazten, helburua laguntza edo akonpainamendu emozionala baita. Baina beharren bat antzemanaz gero, CARITAS GIPUZKOAKo gizarte-langileei jakinarazten diet.

"Entzute Sarea euskarri, konpainia eta ikaskuntza sare bat da".

 **Caritas**
Gipuzkoa

Pertsona batekin, zenbat elkarrizketa izan ditzakezu? Aukera ezberdinak daude. Nire kasuan, harremanetan jarri eta astean behin hitz egiten dut. Deiak tarteka egiten dira, baina pertsona batek hitz egiteko premia handia badu, behin baino gehiagotan deitzen diot. Elkarrizketen %100 emakumeekin egin ditut.

Eta zer adierazi dizute pandemian zehar? Ziurgabetasuna eta indar handia. Aurrera egiteko gogo handia erakutsi didate. Oso emakume indartsuak dira! Beraiekin asko dut ikasteko, birkokatu egiten naute.

Entzulea, laguna... Nola definitzen zara? Elkarrizketan aritzen naizen pertsona, elkarrizketaren erdigunea da, baina kontu handia izan behar da berak transmititzen duen horretan gehiegi ez proiektatzeko orduan.

